



SEMINARIO SERAFICO

PADRES CAPUCHINOS - TEL. 14

ALSASUA
(NAVARRA)

1958.º Kr Negitoren, 15.º an

P. Lafitte, "Herriaren" Luxendarij. Agurgariari.
Baiona.º.

Agur Luxendari guoxiz agurgari ori, agur ta erdi.
Era igortzen dirkizut zerbait euskal-lerio. Au-
xe nure bigdien, aldia. Ea ilabetero bialtran, diatzen
zerbait. Ea ornik yaiari ditoxela, neri aste orp aig-
tzo-aintar ta garaitz-garaitz igortzen, atsegin-atsegin bai
sait "Herria" inakturtasa.

Bista orox ene zorion-aguiak Gabontzen ta
Urte Beritaz, zuri ta zure lankideari. Era oritako
zorionak opa dirkizut eulertuz. Auntia urte...
Zure berbitan afa Yurietar Julian, F.



SEMINARIO SERAFICO

PADRES CAPUCHINOS-TEL. 14

ALSASUA
(NAVARRA)

1959ko Abenduaren 10 - ar.

P. Lafitte apaiz jaun, txist agungoari.
Baiona n.

Agur "Heriaren," Zuzendaria jaunori, agur, agur ta erdi.
Ora ene leio batan "Heriaren."

Ea al da biderik izango neri bialtzeneko Chabier,
umeen aldizkaria, lehenagotik numerotik asi-ta...? Tox-paunik
ikusirik ta irakuririk nuke. Nix ene aldirik yadituko
det "Heriara" ene leioak igotzen.

Eta euztenagot almanakak?

Besterik gabe, zere ser bitoari apaiz
Jure'tay Julian, An

Urteagot arte.

Juleu Igoerakoa

Nongoa ote zan "Fr. Francisco de Vitoria"?.....

(Intxausti'tar Yoseba Abari.)

Iñoz ez egitea baño, noizpait egitea obe, berandu badadi ere.

Azkeneko "Egan" aldizkarian, 1963, I-3 zenbakitan, 136-gaŕen ^oofialdean, Intxausti'tar Yoseba Abak au idazten du: "Orain ogeitamar urte, ozta-ozta, Altzo'ko Aita Mikel Kaputxinoak lan polita eman zigun "Filosofía Vasca".....

Intxausti'tar Yoseba Abak aitatzen duan gutun mamitsua, garai areitan, txit goretsia izan zan.

Gutuna aztertu zutenak, batera zetozen esatera: Altzo'ko Mikel Abak, sakon ta zeatz, ezagutzen zuala espain-goi-ikastoletako gogoetakera.

Ori esan oi zuten; ta ondo esana gero, ba Altzo'ko Mikel Aba, Madri-
Ien ta Bartzelonan, goi-ikastoletako titulo gorenenak irabazia ta lortua zan, gazte-gazterik.

Altzo Abak "Filosofía Vasca" argitara zuanean, nai-nai zuana "euska" edo "eusko" izena bere txokotasunetik ateratzea zan; eta edatu ta munduko orokartasunera sartzea.

Altzo Abaren gutuna baño auferaxego, Leizaola'tar Yosu jaunak beste gutun^{bat} argitara emana zuan: "Contribución ~~de~~ aportación de los vascos al Derecho Internacional" edo ofen antzeko izenen bat.

Buruz ari naiz; ta bi gutunetatik eztitut, ez bata ta ez bestea, en² esku-etan ta begietan; ta ofegatik baditeke bigaŕen gutunaren izena ez izatea ola, i-dea ofela ~~badate~~ bada ere.

Leizaola jaunak ere, Altzo Abak bezela, elburua: "euskal" edo "eusko" izenari leku ematea, munduko igidura beŕietan.

Euskal-ikasteak, aldapa gora, gaurko txifingulariek ~~baño~~ baño arriñoago zioazten, aldiak ziran aiek.....²

Altzo Aba, orain tamalez! gaxo-gaxorik dago Argentina'ko "Buenos Aires" urian.

Beste Altzo Aba (Diego),, anai zaŕagoa du; euskal-idazle ezaguna ta au ere, orain, Lekarotz'en ~~da~~ *eri dago.*

Irugaŕen anai Kaputxinoa, iruretan zaŕena, ~~da~~ "Islas Marianas"-etan gotzai izan ~~zaita~~ *zaita* orain Donosti'ko Kaputxinoen komentuan dagona.

II

Goian alpatutako "Egan"-en bertan ta ofialde berdiflean, onela diosku Intxausti Aba: "Vitoria ez zen euskalduna".....:...

Eztet zalantzik, Intxausti Abak bere izpideak ~~al~~ al dituala, ola idazteko. Ofegatik, lefo onein bidez, mesede eskatzen diot yakinarazteko izpideok, ba lenago, gure aldietan, Fr. Francisco de Vitoria ospetsua, arabara izan zala us-te oi zan.

F. Javier de Landaburu, duela gutxi Frantzi'n il danak (G.B.), 1929-an lan batzu idatzi zituan Gazteiz'ko "Heraldo Alavés" egunkarian; ta gero, 85 ofialde zituan gutunean bildu-ta argitara eman zituan.

Lan argi-sakonak ziran; ta areitan "Vitoria" Aba ospetsua, gazteiztara zala balesten zuan.

Gutun hura ene begien aurrean dut orain ere. Eta auxe du izena: ~~F. Javier de Landaburu~~ "Fray Francisco de Vitoria era de Vitoria". Vitoria, 1929.

Baña irakurleak esan dezake: 1929 aspaldiko garaia da. Gaur beste erara dira zerak.

Ba gero ere, edo orain ere, bada beste gutuna, Iriarte'tar Yokin Yosulagun Abak egiña. Gutun onen izenburu auxe da: Fray Francisco de Vitoria/ del/ lanaje de los Arcayas/ de Vitoria. ~~Aba~~

de los Arcayas/ de Vitoria-Alava. Separata de la revista "Hispania" en el número XXXVI, de 1949.

Yosu-lagun Aba ofen gutunetik ere ageri da: Vitoria Aba entzutetsuaren aita, gazteiztafa zala, zalantzik gabe. Bi seme ospetsuak izan zituala, bata Frantzisko, bestea Diego, hura aundiena, au txikiena, hura legetan yakintsu-yakintsua, dakigun bezela, au predikalari entzute aundikoa.

Gaztea Burgos'en yaio bazan ere, aitak Burgos'en ogipide zualako ta oregatik sendia an bizi zalako, bestea, Frantzisko, legetan yakintsua, gazteiz'en yaio zalako iritzia, aldezten du Iriarte Abak, orafik ere.


Eta oarkizun batean esaterafio doa, Diego anai txikia. Burgos'en yaio bazan ere, izan zitekela aita ta ama an, bidez, zeudelako, au da gutunak oarkizunean diotena: "de paso".

Madinabeitia'tar Jose, arabar apaiz yakintsua, Araba'ko gaietaz ikaste eder ta sakonak idatzi zituana, "Boletín de la real sociedad vascongada de amigos del País" dalako aldizkarian idatzen lankide izana, duela gutxi Altxatzu'n il izar da bere ~~arabaren etxean~~ araben etxean. Aren araba, ~~Elene~~ Elene suskaltzaleak, bere nebaren liburutegitik eman-da, daukat Iriarte Abaren gutuna.

Euskal-lefo oetatik, Goian bego Madinabeitia apaiz yakintsu ta arabazalea-

ri. Eta aren afeba, Elene euskaltzaleari, ene eskefona biotzez.

M o t x o g a n e



Julen Igozkoe

Bilbo'tik: Argi Barria (Zaharra)

Bada denpora, Bilbo'n Euskeraren aldeko abiadura ~~barri~~ barri, sutsua sortuz ta bizia artuz doala. ~~"San Anton'go euskal-katekesia" da.~~ Su orren ta indar barri orren abia (kabia), *"San Anton'go euskal-katekesia" da.*

"San Anton", Bilbo'ko aspaldi-aspaldiko eliza da. Ta bertako parroko, "Gallastegi" yauna, bizkortzaille ta suspertzaille dalarik, ~~Bilbo'ko umeenta~~ umeentzat euskal-katekesia ipifi dabe; ta ganera liburuak, bere, argitaratuz ta ta zabalduz, ~~beaz~~ bear (lan) ederra oi dagie.

Etxeberria'tar Juan Anjel, euskal-idazle ezaguna, "II-garren Batikano" ~~Be-~~ ~~tzarraz~~ ~~bihurtu~~ tzarraz artutako kostitutuziaok, azalmenak ta erabakiak Euskerara ~~biztatuten~~ bihurtuten diardu; ta badituz yadanik batzuk argitaratuak; ta ondo argitaratuak gero; *ta ganerako ta gutxiak euskeratuten diardu.*

Orain, beste euskalkietan argitaratuten ibilli barik, bizkaierako ~~orrei~~ orreik erosi bear leukiez euskaldunek, ta bizkaieraz irakurri. Danok yakin be-
ar ~~ar~~ geunke bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz, be-naparreraz ta ~~zubereraz~~ ~~zubereraz~~ *zubereraz*

irakurtzen. Danok, ikasteak egin dituguzan yendeek, alegia.

-21-

Re Eliz-Batzarraren konstituzio, azalmen ta erabakiok, bereziki-bereziki, yende ikasientzat egiflak dira, esate baterako: apaizentzat ta apaizgaientzat ta irakurtzena maiko oituak dagozan giritifioentzat.

Ettxeberria'tar Juan Anjel ~~yauna~~ bera "euskal iztegi laburra" ^{be ari da} ~~ari da orain~~ egiten. Euskera utsean yakina. "A" izkia argitaratua dauka; eta "B-D" irarkolan dagoz. Gallastegi'tar Kauldi ta Erretolaza'tar Yoseba ~~Andoni~~ Andoni, S. Anton'go abadeak lagunduten deutoe. Oso polita da; ^{euskal-iztegia;} ta marrazki (dibujo, dessin) ugari, politez ornitua ta apaindua. ^{dator}

Aitatutako Erretolaza ~~abadeak berak~~ abadea bera umeen aldizkari eder, xarmagarria, "Kili-Kili" izena dauana, egiten dabil; ta aurrera doa adorez ta kementsu, ta geroago ta ~~ebeteater~~ obeto aterako dauelako ustea da bazterretan.

Lenago, "Onaindia" A. Karmeldarra "Oleriti" bilduma bikain ta baliotsua argiratzen ziarduen.

Orain, barriz, olerkien bilduma aregaz batera, elertiko egille aundienak ta ospetsuenak Euskerara itzuli-ta argitaratzen dabil: Shakespéare'ren lan osoak, Dante'ren Yainkozko Antzerkia, Bergili'ren lan osoak, ta. t. a.

~~Bizkaierako~~ Bizkai'ko egun-sentia, milla kolorez yantzia ta ~~politiki~~ politikua barrero sortuten dakusgula, pozez begi-begira gagozkiogu ta biotzez agurtuten dogu ta zorionak ta ondo etoía egiten deutoegu.....

A don Torrey al T. 18

2

Chidar de que las notas de la pág. 1 vayan junto con el grupo de notas que van en folia aparte.

nota 2, pág. 1: especificar quién es BERU y su óora
¿Es necesario traducir los nombres de mes en nota? Sería mejor seguir un criterio uniforme. O todas las veces cop nota a pie de página, o ninguna vez y enviando la explicación al pequeño vocabulario final. Obsérvese que las nombres de mes salen con mucha frecuencia: 4,14; 5,7; 6,6; 6, 11; 7,17; 8,2.....

La composición parece tener demasiados puntos y aparte. ¿No convendría escribir más seguido? Si se quiere acortar el número de páginas, este procedimiento sería ideal. O quizás recurrir también a letra de composición más menuda en ciertos pasajes de la obra...

19,1: Llamen la atención las últimas palabras...

24,3: Escríbase así: Ap 21,12

24,6: Escríbase así: Af 2,20 quizás convendría cambiar la misma sigla...

31,7: batzaten

31,11: txingaten

31,12: atsegin atsegin ^{veintidós} No siempre se ha seguido uniformidad en poner entre comillas los nombres propios de cardenales y de otros.

34: Indicar qué india significa el punto negro al comienzo de los párrafos

55 final: Sorkaldeko

64, a). b). - Suprímase el punto

72,9: necesita una nota como la que trae en Oarkizunak

3,7 77,1: Atención al Emeretzigaten oñaldean...

Yurre'tar Yulen Abak, bere, irarkolan dauka "II-garren Batikano" Batzarrari buruzko bigarren ta azken liburua.

Lelengoa, "23-garren Yon Aita Santua ta "II-garren Batikano" Batzarra" ~~an~~ zan. Ta orain, beste bigarren liburua, aren antzekoa, "6-garren Paul Aita Santua ta "II-garren Batikano" Batzarra". ~~da~~ 6-garren Paul Aita Santuak, zelan, alegia, yarraitu ta amaitu eban Batzarra.

Bigarren liburu au, lelengoa baiño luzeago ta mamitsuago ta gazdunagoa da; ta a bezin merkea; ta ganera edozein yendeek ulertzeko egia. Batzarraren mamia ta gogaiak ta ideiak, argi ta ulerterraz, ~~adiazarsten~~ adiarazoak dagozalako.

Irakurle asko etorri dakizkiela etorri; ta zori on-ona euki dagiela euki, biotzaren erditik opa deutseegu.

M o t x o g a n e ^k